



IKASTOLAKO  
ALDIZKARIA

2000ko  
abendua

# GURE

# GAUZAK

13<sup>zk.</sup>

A. R. Olabide, Koop. Elk.  
Tel.: 945150 640  
Postasaila 571  
01080 Vitoria-Gasteiz  
e-mail: posta@olabide.com

Iñaki Ortiz de Arri • Batx. 2.D

# ABENDUAK 2000



## AITA RAIMUNDO OLABIDE (1869-1942)



**G**asteizen jaio zen Raimundo German Olabide Carrera, 1869ko martxoaren 15ean.

Hamaika urte zituela, 1880an, batxilergoa ikasten hasi zen Urduñan (Bizkaia) jesuiten ikastetxean. Lau urte berandua gozatu zuen Azpeitiko Loiolako nobiziatuan sartu zen.

1894tik 1899ra bere bokaziorako prestatu zen, humanistika eta filosofia ikasketak Loiolan, Veruelan eta Tortosan egin. Urte haietan maisu aritu zen Jesuiten ikastetxeetan: Valladoliden, Salamancan, Oñan eta Gijonen. Salamancan zegoela hasi zen euskara ikasten 1896an, 27 urte zituela. Ordu arte ez zekien euskaraz. Bai, ordea, katalanez, grekoz eta latinez.

Teologia ikasketak 1900ean hasi zituen, eta 1904an apaiz ordenatu zuten Oñan (Burgos). Salamancako Unibertsitatean Filosofia eta Letretan lizentziatu zen 1906an. Horrez gain, oso azkarra zen beste arlo batzuetan ere: matematikan, fisikan, nekazaritzan, naturan... eta musikan. Koru bateko zuzendari izan zen Gijonen egon zenean.

1918an, Oñatin (Gipuzkoa) egin zen Eusko Ikaskuntzen lehen kongresuan parte hartu zuen. Kongresu hartan erabaki zen Euskaltzaindia sortzea, eta ekitaldi hartan euskaltzain fundatzaile izendatu zuten. Lan horretan aritu zen 1942an hil zen arte. Eusko Ikaskuntza erakundeko bazkide fundatzaile ere izan zen. Erakunde horietan, bere lan nagusietako bat hizkuntza normalizatua eta hizkuntza ofizialaren duintasuna lortzen saiatzea izan zen.

Tolosako (Frantzia) Andre Maria Sortzez Garbiaren ikastetxera joan zen 1937an, eta han izan zen hil arte. Istripuz hil zen 1942ko irailaren 9an: hirian barrena paseatzen zihohala, kamioi batetik enbor bat erori zen, eta enborrak paretaren aurka harapatu zuen gure gizona. Itxuraz, zauri arin batzuk baino ez zizkion eragin, baina handik egun batzuetara hil egin zen, eta ez dakigu golpe horrek eragindako barne zauriengatik izan ote zen.

Tolosako (Frantzia) Andre Maria Sortzez Garbiaren ikastetxera joan zen 1937an, eta han izan zen hil arte. Istripuz hil zen 1942ko irailaren 9an: hirian barrena paseatzen zihohala, kamioi batetik enbor bat erori zen, eta enborrak paretaren aurka harapatu zuen gure gizona. Itxuraz, zauri arin batzuk baino ez zizkion eragin, baina handik egun batzuetara hil egin zen, eta ez dakigu golpe horrek eragindako barne zauriengatik izan ote zen.

### ARGITARATUTAKO OBRAK:

**Loyola'tar Eneko Deunaren Gogo Iñardunak (Bilbo, 1914):** La Guardiako (Pontevedra) Camposacos ikastetxean zegoela, 1914an, bere lehen liburua argitaratu zuen Bilboko Verdes argitaletxean: San Ignazio Loiolakoak idatzitako gogo-jardunen euskarazko itzulpena.

**Giza-Soña (Tolosa, 1917):** Valladolideko San Jose ikastetxean zegoela, anatomiar eta fisiologiari buruzko lexikoa argitaratu zuen Tolosan. Giza soñari eta giza zatiei dagozkion euskal izenen bilduma edo errepertorio exhaustiboa da (7.000 hitz, gutxi gorabehera), alfabetoaren hurrenkerari jarraituz antolatuta, eta hitz horiek euskaltzaindik esaldi eta erreferentziaz lagunduta.

Garai hartan euskara bazterturik zegoen, eta egoera hartatik atera nahi zuen gure hizkuntza. Horretarako, zientzia liburua euskaraz argitaratzen, eta horrela kultura eta zientzia gaietako euskarazko terminologia eratzen hasi zen. Beste arlo batzuei buruzko liburua ere argitaratu nahi zituen, hala nola, arimari, erlijioari, kimikari, nekazaritzari... buruzkoak.

**Kisto'ren Antz Bidea (Donostia, 1920):** Donostian *Kisto'ren Antz Bidea* argitaratu zuen 1920an. Thomas de Kempisen *Imitación de Cristo* liburuaren euskarazko ordaina da.

**Itun Berria (Bilbao, 1931):** Bilbon Itun Berria euskaraz argitaratu zuen 1931ean, baina argitalpen hori bere asmoaren zati bat baino ez zen. Izan ere, biblia osoa itzultzen ari zen.

**Itun Zar eta Berria (Bilbao, 1958):** Zailtasun ugari izan zuen, 1958an Bilbon Itun Zaharra eta Berria argitaratu aurretik. Era askotako eragozpenak izan zituen: Jesusen Konpainiaren desegitea, Gerra Zibila, Gernikako bonbardaketan obra hori *in extremis* salbatu izana, Tolosara (Frantzia) joan izana...

Biblia osoa (Itun Zaharra eta Berria) 1942an amaitu zuen, hil baino egun batzuk lehenago. Hogeita bat urte igaro zituen biblia euskaratzen eta hil eta 16 urtera argitaratu zuten. Biblia hori izan zen Bidasoaren alde honetan argitaratu zen lehena. Izan ere, horren aurrekoa Londresen argitaratu zen 1865ean (250 ale baino ez) Luis Luciano Bonaparte Printzearen laguntzarekin, Duvoisin kapitainak euskaratuta.

Hemen aipatutako itzulpenez gain, Olabidek beste idatzi asko egin zuen euskaraz, hala nola, *Giza Gogoa* (amaitu gabea), fisikako apunteak, *Eso-poren Alegiak*, fabulak... Hainbat arrazoi tarteko, idatzi horiek guztiak ez ziren argitaratu.

Azken ezadatan Ramon Narbaiza aitak gure ikastolari jarri zion izena, **AITA RAIMUNDO OLABIDE**, guztiz egokia dela, egokiena ez bada. Bi arrazoi daude hori horrela dela esateko: lehenik eta behin, Olabidek ia bizitza osoa eman ziola irakaskuntzari; eta, bigarrenik, euskara ikertu eta zabaltzeko egin zuen ahalegina.

Haren nortasunari eta lanari omenaldia egin zieten Gasteizko Principal antzokian, 1969ko martxoaren 18an, Goenaga josulagunaren ardurapean.

Eta haren oroitzapena ohoratzea da gure hizkuntzari buruz zituen nahiak eta esperantzak gogoratzea: «Etorriko dira nire atzetik euskal eskolak, etorkizuneko euskoarrei hizkuntza hau erakutsiko dietenak, eta horrela dena bideragarri izango da».

GOIO MARTÍNEZ BENITO

Aita Raimundo Olabide Ikastolako kooperatibista • Kooperatibista de «Aita Raimundo Olabide Ikastola»

**R**aimundo Germán Olabide Carrera nació en Vitoria-Gasteiz el 15 de marzo de 1869.

En 1880, con 11 años inicia sus estudios de bachillerato en Orduña (Bizkaia), en el colegio de los Padres Jesuitas, ingresando cuatro años más tarde en el noviciado de Loyola en Azpeitia.

El periodo comprendido entre 1894 y 1899, es de preparación en su vocación, realizando diversos estudios humanísticos y filosóficos en Loyola, Veruela y Tortosa. En estos años ejerce también como maestro en los colegios Jesuitas de Valladolid, Salamanca, Oña y Gijón. Fue en 1896, con 27 años, cuando emprendió en Salamanca el aprendizaje del euskera, lengua que desconocía por completo. Por el contrario hablaba catalán, griego y latín, además del castellano.

Inició estudios teológicos en 1900, ordenándose sacerdote en 1904 en Oña (Burgos).

Se licenció en Filosofía y Letras en 1906 en la Universidad de Salamanca, y además poseía conocimientos profundos en diversas materias: matemáticas, física, agricultura, naturaleza, ..., incluso música, ya que fue director de una coral durante su estancia en Gijón.

En 1918 tomó parte en el Primer Congreso de Estudios Vascos celebrado en Oñati (Gipuzkoa), donde surgió la iniciativa de crear la Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, siendo nombrado académico fundador, tarea que desempeñó hasta su muerte en 1942. Asimismo fue socio fundador de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos. Uno de sus principales trabajos desde estas instituciones era la de lograr una lengua normalizada y con la dignidad de una lengua oficial.

En 1937 se desplazó al Colegio de la Inmaculada de Toulouse (Francia), donde residió hasta su muerte, acaecida el 9 de septiembre de 1942 como consecuencia de un desgraciado accidente. Un día cuando paseaba por la ciudad, se desprendió uno de los troncos que transportaba un camión, golpeándole contra una pared. Parece ser que no sufrió más que pequeños daños superficiales, pero la cuestión es que no se sabe si como consecuencia de ese golpe, se le pudo originar una lesión interna, pero el caso es que falleció días más tarde.

### OBRAS PUBLICADAS:

**Loyola'tar Eneko Deunaren Gogo Iñardunak (Bilbao, 1914):** En el año 1914, hallándose en el colegio de La Guardia Camposancos (Pontevedra), publica en la editorial Verdes de Bilbao su primer trabajo, la traducción al euskera de los ejercicios espirituales escritos por San Ignacio de Loyola.

**Giza-Soña (Tolosa, 1917):** Estando en el colegio San José de Valladolid, publica en Tolosa su trabajo dedicado al estudio del léxico anatómico y fisiológico. Se trata de una recopilación o repertorio alfabético exhaustivo de los nombres vascos (7.000 palabras aproximadamente), correspondientes al cuerpo humano y sus partes, acompañado de frases, refranes, y de las acepciones en los diversos dialectos del euskera.

Su objetivo era el de sacar al euskera de la situación a la que estaba relegada, intentando modificar dicha condición con la publicación de libros de ciencia en euskera y dotarlo así de terminología los temas culturales y científicos. Su propósito era el de ir publicando otras obras referentes al alma, la religión, la química, la agricultura, ...

**Kisto'ren Antz Bidea (Donostia, 1920):** En 1920 publica en Donostia la obra "Kisto'ren Antz Bidea", se trata de la traducción al euskera de la "Imitación de Cristo" de Thomas de Kempis.

**Itun Berria (Bilbao, 1931):** En el año 1931 publica en Bilbao la traducción del Nuevo Testamento al euskera, como paso previo a la traducción completa de la Biblia en la que estaba inmerso.

**Itun Zar eta Berria (Bilbao, 1958):** Las dificultades por las que pasó la publicación del Antiguo y Nuevo Testamento antes de su publicación en 1958 en Bilbao fueron muchas y por muy diversos motivos: disolución de la Compañía de Jesús, la Guerra Civil, la salvación in extremis de su destrucción en el bombardeo de Gernika, su desplazamiento a Toulouse, ...

Esta Biblia completa (Antiguo y Nuevo Testamento), fue finalizada en 1942, días antes de su muerte, para lo cual utilizó 21 años de su vida, y se publicó 16 años después de su fallecimiento. Esta Biblia sería la primera en publicarse en euskera a este lado del Bidasoa, puesto que la anterior, se publicó en Londres en 1865 (se editaron sólo 250 ejemplares), gracias al patrocinio del Príncipe Luis Luciano Bonaparte, y que fue traducida al laboritano por el capitán Duvoisin.

Aparte de las obras publicadas descritas aquí, Olabide redactó también otros escritos en euskera, entre ellos *Giza Gogoa* (no finalizado), apuntes de física, *Eso-poren Alegiak*, fábulas, ... que no llegaron a publicarse por diversas circunstancias.

Por último, es de destacar dos hechos que hacen que el nombre de "AITA RAIMUNDO OLABIDE" dado en 1963 a nuestra Ikastola por el Padre Ramón Narbaiza, sea uno de los mejores nombres, si no el mejor, que se le podía haber dado: la primera es que prácticamente toda su vida la dedicó a la enseñanza, y la segunda su aportación al estudio y difusión del euskera.

Un recuerdo a su figura y a su trabajo le fue tributado en el Teatro Principal de Vitoria-Gasteiz el 18 de marzo de 1969, a cargo del jesuita P. Goenaga.

Un homenaje a su memoria es recordar con sus propias palabras sus deseos y esperanzas sobre nuestra lengua: "Ya vendrán detrás de mí las escuelas vascas que enseñen esta lengua a los vascos del futuro, y así todo se hará viable".

## AURRESKOLA Udazkeneko Errioxara Irteera

*aurreeskola*

Urtero bezala aurtengo urrian Haur Hezkuntzako HH 2.6 mailakoe-kin Errioxara egin genuen irteera, honetan udazkeneko ezaugarri eta berezitasunak ikusteko asmoz, baita ere mahats bilketa eta ardo-aren egite prozesua behatzeko.

Horrela, goizean goiz, Herrera mendatean hosto, perretxiko eta abarren bilketan aritu ginen ondoren Errioxako balkoian hamarre-



takoa egin eta ostean Lanziegorantz abiatu ginen, bertan bodega bat ikusi eta mahastietan mahatsa biltzeko aukera izan genuen.

Bazkaldu eta Gasteizerantz itzuli ginen haurrentzat aberats eta interesgarri suertatu zen txango honi amaiera emanaz.

...

Como venimos haciendo estos últimos años en octubre realiza- mos una salida con nuestros alumnos de HH 2.6 a la Rioja. El motivo de esta excursión es descubrir con nuestros pequeños los rasgos característicos del Otoño, así como disfrutar del proceso de recolección de la uva en esta época de la vendimia.

Al comienzo de la excursión, a la mañana en el puerto de Herre- ra pudimos recoger las hojas caídas así como algunas setas ; a continuación en el Balcón de la Rioja desayunamos y nos dirigi- mos a Lanziego donde pudimos visitar una bodega y tuvimos la oportunidad de recoger uva y mostrarles un poco el proceso de la vendimia.

Después de comer finalizamos esta salida que resultó tan diverti- da como interesante y la que seguiremos repitiendo y mejorando.

## LEHEN HEZKUNTZA Haloween jaia

Urtero bezala, aurten ere Haloween ospatu genuen ikastolan. 6.mailakoek Lehen Hezkuntzako beste ikasle guztiak beldurtu zituzten.

L.H. Ingeles mintegia



## BIGARREN HEZKUNTZA Aubixara irteera

*bigarren hezkuntza*

Azaroaren 20tik 24ra bitartean DBH 2.B mailako ikasleak Aubixa barnetegian izan ziren beraien euskara maila suspertzeko asmoz.

Urtero bezala ikastolako asmoa talde bakar bat baino gehiago era-

matea izan da; baina bakar batentzat soilik izan dugu aukera.

Bai beraiekin izan diren irakasleen balorazioa, zein ikasleena guz- tiz baikorra izan da, bai euskara alorrean zein harreman mailan.

1991ko irailean laugarren Euskal Giroitze Barnetegia ireki zen. Gipuzkoako Deba Behean kokatuta dago. Nahiz eta inguru hau guztiz industrialia eta nahiko erdalduna izan, barnetegia bera guztiz bestelako giroan daukagu.

Aubixa, herritik sei kilometrora dagoen auzotxo bateko baserria da. San Pedro bai- laran dago kokatua.



## Alemania-z trukaketak egiten Gasteiz-Stuttgart

Uda honetan trukaketa berri bat antolatu izan da Alemaniara ikas-tolatik. Aurreko ikasturtean Wurtzen- era trukaketa egin izan zenean ikasle batzuk aukerarik gabe gelditu zen ez baitzegoen lekurik hango familietan hainbeste ikasle hartzeko. Hori dela eta, ikasle hauek interkanbiorik gabe gera ez zitezten antolatu egin zen uda honetarako bigarren hau.

Orokorren balorazioa nahiko positiboa izan zen, badirudi aipagarria dela hangoek zuten maila, pelikuletan agertzen ohi diren moduko etxeak, kotxeak eta bizimodua.

Gure ikasleak nahiko harrিতa bueltatu zirela bazirudien; beraiek hementxe aipatzen digutenez jateko dituzten ohitura desberdinekin ere.

Ekainaren 27an atera ginen gaueko 10.30etan Gasteizko autobus geltokitik. Guztira 17 ikasle ginen: 3 mutil eta 14 neska. Arratsaldeko 6retan iritsi ginen Stuttgart-era eta bakoitza tokatu zitzaigun familiarekin joan egin ginen.

Hurrengo egunean Mertz-Schulea, beraien ikastetxea, erakutsi egin ziguten.

Ondorengo egunetan hainbat irteera egin izan genuen: Mercedes-Benz Museum, Mertzen Garten, Wilhelma Zoo... Orokorrean, gauzarik txarrena janaria izan zen nahiz eta egun batean ikastetxean barbakoia bat antolatu zuten eta orduan bai, ea platera eta guzti jan genuen.

Azkenik, Zorioneri, gure alemaneko irakasleari, eskerrak ematea besterik ez zaigu gelditzen. Bidaia hauek bere interesa barik ez bailirateke posible izango. Eskerrik Ask Zorione!

*Estitxu Bengoetxea • Mainer Riaño • Maite Ríos • Batx. 1.D*

## Wurtzen-Gasteiz

Oraingoa bi hilabete gutxi gora-behera, guk iazko irailean bisitatu genituen lagunek gurekin 15 egun pasatzeko aukera izan zuten.

Oso esparientzia polita izan da, beti gogoan izango duguna. Hauei Euskal Herrian ditugun txokorik bereizgarrienak erakutsi genizkien, asko disfrutatu genuelarik. Hauen artean: Bilbo (Guggenheim), Donostia (Kurtsala, Alde Zaharra), Gernika, Mundaka, Errioxara... etb. Honez gain, beraiek Madrilen asteburu bat pasatzeko aukera ere izan zuten.

Eta bukatzeko, aipatu, gauza hauek egitea oso aberasgarria aurkitzen dugula, jende, leku, kultura eta hizkuntza berriak ezagutu eta ikasteko aukera ematen baitu. Baina guzti haurerara ateratzeko lan gogor bat egin beharra dago, eta horregatik eskertu nahi dugu honetan lan gehien egin duen pertsona. Eskerrik Ask Zorione!



*Goizeder, Lorena eta Nora • Batx. 1*

## Frantziako ikasleekin trukaketa

Bordelen, irailak 22 - 23 - 24 eta Gasteizen irailak 29 - 30 Pirineoetako herrialdeen artean, Aquitaine, Bearne, Euskal Herria eta Katalunia, bururutako ekintza deportibo-kulturalak oso aberasgarriak izan dira, Frantzez herriko kultura, jendearen ohiturak, hizkuntza eta hiri bera ere, froga gogorreki esker goitik-behera ezagutu ahal izateko eta bide batez ondo pasatzeko aukera izan dugulako. Beraiek ere iritzi berdina izatea espero dugu. Nork daki, beharbada egunen batean berriz ere elkar ikusteko oportunitatea izango dugu!

Gainera, lehenengo saria zailtasunak zirela eta lortu ez bagenuen ere, ikastolakook "Prix á la Solidarité" saria irabazi genuen.



## RUTA QUETZAL 2000

"Gure Gauzak" aldizkariaren azkenengo zenbakian, 12. ean hain zuzen ere, aipatzen genizuen gure bi ikasleek Ruta Quetzal leihaketan parte hartu eta irabaztea lortu zutela. Bertan azaltzen genizuen ere saria guztiz interesgarria zirudielako, hori dela eta oraingoa zenbaki honetan horren berri ematen digute zorioneko bi irabazle hauek.

Como recordaréis en la última entrega de "Gure Gauzak" os habíamos de "la suerte" que dos de nuestros alumnos habían tenido ya que habían participado en el concurso de Ruta Quetzal consiguiendo quedar finalistas. Allí se comentaba el gran viaje que iban a realizar y han querido hacernos una reseña sobre lo que este viaje supuso para ellos.

### Españan zehar

Ekainaren 21etik Uztailaren 19 arte Espainiako hainbat leku oso interesgarri bisitatu genituen. Lehenengo egunak Madrilen igaro genituen eta beste gauza askoren artean Erregea ikustera joan ginen. Gero, Extremadura, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Asturias eta Kantabriako hiri eta herrietatik ibili ondoren, jadanik oso gustura eta lagunmin askorekin, Madrilerantz itzuli ginen EEBB-tara eramango gintuen hegazkina hartzeko. Zortzi ordu igaro eta gero bidaiaren bigarren zatia hasi ginen.

*Iñigo Ortíz*



### Recorrido por tierras de España

Desde el 21 de Junio al 19 de Julio visitamos sitios muy interesantes de España. Los primeros días los pasamos en Madrid y entre otras cosas, fuimos a ver al Rey. Después de pasar por pueblos y ciudades de Extremadura, Castilla la Mancha, Castilla León, Asturias y Cantabria volvimos a Madrid para montarnos, ya muy contentos y con muchos amigos, en el avión que nos llevaría a EEUU. Luego de ocho horas de viaje empezó la Segunda parte de éste.

*Itzea Goikolea • Batxiler 1. Maila*

### Estatu Batuak eta Mexiko

Hegaldiaren ondoren Miami-ko aeroportura heldu ginen, Floridan, Brademton izeneko hiri txiki batean egon ginen 3 egun eta ondoren beste hegazkin bat hartu genuen Albuquerque-ko. Hemen Estatu Batuetako ejerzitoaren base batean gelditu ginen bost egun, neska, noski oheetan eta gu, mutilok lurtean, beti bezala. Handik Elephant Butte izeneko laku batera joan ginen, eta han, gauean, tornado bat eduki genuen, eta dendak apurtu, area begietan sartu, ... Gero Mexikon sartu eta kontraste izugarria aurkitu genuen, hango pobrezia zela eta. Han Basaseachic-eko urjauzia, 350 metro-takoa, Tarahumara indioekin geratu ginen bost egun, bere festak beraiekin ospatzen... Azkenean Mexiko D.F.-ra heldu ginen, eta han bi egun egon ondoren Madrilerantz hartu genuen hegazkina, non guztiok tristura handiz gure lagunak agurtu genituen.

*Iñigo Ortíz*

## URGATZI

**N**UESTRAS actividades extraescolares ya están metidas en el ritmo de las competiciones. Dejando a un lado las actividades que fomentan sus muchos valores al margen de la competición, el resto ya ha comenzado sus ligas que tanto motivan a [nuestr@s](#) participantes. Este ritmo competitivo dejará una mejor o peor clasificación, pero estamos seguros que a todos nos enriquecerá con su aspecto más deportivo.

Por otro lado, como fiesta de inauguración de este arranque de temporada, Urgatzi Kirol Elkarteak organizó el pasado 5 de noviembre su II Cross Olabide. Esta 2ª edición abierta a [tod@s l@s](#) participantes de los centros y Clubs de Álava desde categoría benjamín a cadete, contó con una gran participación en todas las categorías y en especial por parte de [l@s alumn@s](#) de Olabide ( la ayuda del profesorado fue fundamental) que se animaron incluso en categoría pre-benjamín.

Fue un gran fiesta del atletismo tan solo deslucida por la gran cantidad de lluvia que tuvimos que aguantar toda la mañana.

En el aspecto organizativo queremos destacar el inmenso trabajo realizado por varios padres de nuestra Ikastola, en especial los encargados de la sección de Atletismo, Alfredo Donnay y Javier Martínez De Aramaiona. Este último recibió un pequeño recuerdo como despedida de su cargo de Delegado de la sección de Atletismo.

• • •

Gure eskolaz kanpoko ekintzak jadanik txapelketako martxan sartuta daude. Beraien balore anitz txapelketatik kanpo lantzen dituzten ekintzak alde batera utzita, gainontzeko guztiek hain motibagarriak diren ligak hasi dituzte. Lehiaketako erritmo honek sailkapen hobea goak edo txarragoak dizkigu, baina zalantzarik

gabe guztiok aberastuko gara bere kiroltasunaz.

Beste aldetik, denboraldi honen hasierako jai bezala, Urgatzi Kirol Elkarteak pasaden azaroaren 5ean bere Olabideko II Krossa antolatu zuen. Bigarren edizio hau zabaldu zen Arabako ikastetxe eta Klubeko partehartzaile guztiei, benjamin eta kadete kategorien artean. Partehartzea handia izan zen, batez ere Olabideko ikasleen aldetik (irakaslegoaren laguntza ezinbestekoa izan zen) pre-benjamin kategorian ere animatu zirela.

Atletismoko jai handia izan zen eta izan genuen kontu desatsegin bakarra euripean goiz osoa egotea izan zen.

Antolamenduaz hitz egiterakoan, aipatu nahi dugu Ikastolako guraso batzuen lan izugarria, bereziki Atletismo arduradunena. Hau da, Alfredo Donnay eta Javier Martínez De Aramaiona. Azken honek goraipen txiki bat jaso zuen Atletismoko Delekatu lanari agurra emateagaitik.



## olabide kultur elkarte a

**B**ERRIZ ere ikasturte berri batekin hasi gara, 390 haur ditugularik. Urte hauetan bezala gure ekintzak hauek dira: Abesbatza, Txistu, Dantza, Lenguaiak Musikala, Antzerkilaritza eta Musikari Hasiera. Guzti hau aurrera eramateko 22 monitorea ditugu.

Hemendik aurrera gabonetako ekintza guztiak prestatzen hasiko gara eta beti bezala, gure berri izango duzue lerro hauen bidez.

• • •

Un año más hemos comenzado con un nuevo curso escolar con 390 niños/as. Como anteriores años las actividades que tenemos son las siguientes; Coro, Txistu, Dantza, Lenguaje Musical, Expresión Dramática e Iniciación Musical. Para llevar adelante estas actividades contamos con 22 monitores/as.

A partir de ahora comenzaremos a preparar todas las actividades navideñas y como siempre, podréis tener noticias nuestras mediante estas líneas

# EUSKARRAREN TXOKOA

**Kaixo Olabideko euskalzale eta euskaldun guztioi!**

**Txoko deitzen badiogu ere, leiho izan nahi dugu, kanpora eta barrura irekitzen den leihoa, haizea sartu eta ateratzeko izango den leihoa. Ikasle, irakasle, langile eta gurasoen arteko leiho euskaraz goxatzeko eta gehiago jakiteko. Helburuak, asko dira, hizkuntza, soziolingüistika, aisialdia, kultura, datu bitxiak, jakingarri ugari...**

**Atalak oraingo honetan dakusazuenak gehi zuek nahi dituzuen guztiak izango dira, zuen interes eta gure ahalmenen arabera.**

## 1.-Esaera zaharrak:

**Non da nire gogoa, han da nire zangoa.**

Esanahietariko bat: Zerbait lortu nahi bada, nonbaitera heldu nahi bada, gogoz hartu eta bidean aurrera jo behar da.. bai euskara zabaltzeko, bai ikasketetan eta lanean aurrera jotzeko...

**Gaur hitza eman, bihar gogoak eraman.**

Esanahietariko bat: Gaur egun bizi dugu egoera kaxkarrean ez da txarra izango euskaldunon hitza zer zen eta oraindik ere, egoera nahasia bada ere, zer den.

**Nagusi askoren astoa, gosez hil.**

Esanahietariko bat: Batek zainduko duelakoan besteak zainduko duelakoan, azkenean inork zaindu ez, eta goseak jota hil zen astoa.

Besteek hitz egingo dutelakoan, seme-alabek erabiliko dutelakoan, erreztasuna dudanean, telefonoz noizbehinka, beti egon denez inoiz galduko ez delakoan .... azkenean ....

Nagusi askoren EUSKARA, gosez hil

## 2.-Aita Raimundok , zer esango luke?

Pozik nago!

Aste honetan jakin dugu 6 urte dituen neskatila batek eta 16 urte dituen bere nebak elkari euskaraz hitz egitea erabaki dutela, orokorrean ematen ez dela ikusirik gauza polita da gutxi batzuek animatzen direla euskaraz mintzatzera.

Ikastolaren lehen urteetan ikasle talde dozena batek osatu zuen eta orain urtero urtero ehundik gora neska-mutil euskaldun ateratzen dira Olabidetik Gasteiz euskaldundu eta elebiduntzera, zailtasunak zailtasun eta oztopoak oztopo.

Pentsa, Olabide jaunak Salamancan ikasi zuen gure hizkuntza zaharra eta 20. mendera heltzear gaudenean milaka dira Olabidetik atera eta euskarari tinko eusten diotenak, beraien etxeetan, koadrilan, seme-alabekin, baita normaltasunean laguntzen beraien lanpostuetan ere, euskaltzale umil ugari politikari, kirolari eta pertsona ezagunez gain

## 3.-Olabidekeriak

Ez dira urte asko pasako Euskaltzaindiak bere Hiztegi Batuan zenbait hitz xeble sartu arte:

Baratza: Gasteizen bertan ere zabaldua dagoen hitza jolastokia adierazteko. Nondik datorren?

Garai batean, oraindik Patxi Zaharra bizi zenean, Olabide Ikastola Estibalizko Amabirginaren etorbidean zuenean bere egoitza, jolastokia, atzeko partean zuen baratza zen eta hortik dator.. «vamos a jugar en la baratza» Badira beste adibide asko gure euskañolean:

¿Qué has sacado en la asterketa? (zeta ondo ahoskatuko bagenu behinik behin..)

Andereño has zuzenduado los kontrolak.

¡Ay! No he traído las lanas! (eta ardiak)

## 4.-Euskara interneten, euskaldunak ere modernitatean!

Aurrekoan aipatu genizuen guk geuk ere badugula geure Web orria: [www.olabide.com](http://www.olabide.com)

Gero eta txukunago dagoena eta aurrerantzean hobekuntza ugari izango dituen, ziur egon!

### 4.1.-Hizkuntzari dagokionez:

[www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net) Azken hau zertan dabilen eta arauak eta hiztegi batuaren berri izateko ezinbestekoa

[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)/euskara Hemen informazio asko aurki dezakezue, Elhuyar eta 3000 hiztegiatarra hel zaitezketek bertatik, Euskararen berripapera eta Administrazioa euskaraz aldizkarietara hel zaitezketek...eta abar, eta abar,...

### 4.2.-Hezkuntza:

Hemen dituzue hainbat unibertsitate eta antzekoen halbide elektroniko batzuek.

[www.ikastola.net](http://www.ikastola.net) Ikastolen elkartearen orria.

[www.habe.org](http://www.habe.org)

[www.ueu.org](http://www.ueu.org) Udako Euskal Unibertsitatea .

[www.ehu.es/euskara/paginas/prin\\_e.htm](http://www.ehu.es/euskara/paginas/prin_e.htm) Euskal Herriko Unibertsitatea.

[www.deusto.es/homee.asp](http://www.deusto.es/homee.asp) Deustuko unibertsitatea.

[www.unavarra.es/euskara/index.htm](http://www.unavarra.es/euskara/index.htm) Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

[www.muni.es](http://www.muni.es) Mondragon Unibertsitatea

### 4.3.-Komunikabideak:

Euskara hutsezko zenbait komunikabide daude sarean baina garrantzitsuenak eta erabilgarrienak hiru hauek lirateke:

[www.argia.com](http://www.argia.com) Argia aldizkari euskaldun historikoa, Zeruko Argia zena.

[www.egunkaria.com](http://www.egunkaria.com) Euskaldunon Egunkariaren orria, hamar urte bete berri dituen egunkari euskalduna (zorionak!!), egunero agertzen den euskal egunkari bakarra(astelehenetan, noiz?).

[www.eitb.com](http://www.eitb.com) Euskal Irrati Telebistaren web orri saritua.

### 4.4.-Bilatzaile euskaldunak:

[www.kaixo.com](http://www.kaixo.com)

[www.aurki.com](http://www.aurki.com)

[www.jalgi.com](http://www.jalgi.com)

# IKASLEEN TXOKOA:

## Argudio testua

### MARKAKO ARROPAK

Jendeak, markako arropak kalitate hobea duela uste du, eta nik ere hori uste dut, kasu batzuetan behintzat.

Beste askotan arropa marka batzuk ez dira hain produkzio onekoak eta horien prezioak altuegiak dira, hau dela eta, kontuz ibili behar dugu arropa erosterakoan iruzur bat izan daitekeelako.

Eta nire galdera hurrengo hau da: zergatik markako arropa da hain garestia kalitateagatik edo modan dagoelako? Edo beste era batera esanda, markako arropa eramaten dugu ona delako edo modan dagoelako? Galdera hauek norberak erantzun beharko ditu.

Nik zuzenean erantzungo ditut, ohitura dugu modapean ez gaudela esaten baina gezurra hutsa beste-rik ez da hau, modapean bizi garelako, kontsumitzaile hutsak garelako, eta nahitanahiez modaren eragina gugarri izugarria delako.

Beste alde batetik, gure gizartean irudia oso garrantzitsua da, eta askotan gizon edo emakume baten itxura arropen finkatuta dago, arropa markakoa baldin bada irudi hobea emango du eta jendearen pentsakera positiboagoa izango da.

Laburtuz, modagatik, irudiagatik eta jendeak zutaz duen pentsakeragatik erosten ditugu markako arropak.

Ni ere modapean nago eta noizean behin markako arropa erosten dut, baina hori ez da beti gertatzen, eta nire gustokoa den zerbait ikusten dudanean berdin zait markakoa izan ala ez, izan ere gustatzen zaidan arropa erosten baitut.

Ni ez nago markako arropa erostearen alde esta kontrari, badituelako bere alde onak eta txarrak ere, baina gaizki iruditzen zait markadun arroparekin jartzeko den jendea, bere gustokoa delako "pijo" deitzea, eta onartzen dut nik ere horrelakoak egiten ditudala.

Honek zera erakusten digu, markako arropa, moda, merkaturia, itxura, gustua ... norberaren jarrera eta nortasuna besterik ez dela, eta gai hauen atzean dagoena betiko kontua dela; edukitzea eta izatea.

Eneritz Ibarretxe • DBH 4.A

Narrazio  
Literaria

## Nor dabil nire bizitzaz jolasten?

Nire familiak ez du inoiz diru askorik izan. Hirurok, nire ama, aita eta ni, txabola batetan bizi ginen baina txiki gelditu zitzaigun. Nire aitak ideia bat izan zuen: ondoko herrian zegoen etxe abandonatu batetara bizitzera joatea. Ama eta ni hasieran ez geunden ados bitxikeria asko entzunda genituelako etxe horri buruz, baina azkenean joatea erabaki genuen. Kotxea hartu eta martxan jarri ginen. Etxea ikusi bezain pronto ahozabalik gelditu ginen. Etxea izugarri handia zen eta oso misteriozua zirudien. Barrura sartu ginenean etxe aberatsa ematen zuen. Pelikula amerikano horietan agertzen diren bezalakoak. Etxe guztia ikusi ondoren nire gela aukeratu nuen batzuen artean asko baitzeuden. Pijama jantzi eta ama eta aitari muxu bat eman ondoren ohean sartu nintzen oso berandu baitzen.

Bapatean, izerdi patsetan esnatu nintzen amezgaito baten ondorioz. Oso arraroa iruditu zitzaidan, ni, 14 urtetako neska ausarta nintzelako eta urte askotan zehar, ez nuelako amezgaito bat ere ez izan. Amets honetan nire adineko mutil bat toki ilun batena agertzen zen. Mutilak aurpegia zurbila zuen eta laguntza eskarzen ari zen:

"-Akabatuta nago" "nireak egin du" - esaten zuen  
"- Lagundu nazazu bestela zure bizitza pikutara joango da. Lagundu nazazu..." -errepikatzen zuen behin eta berriro.

Mutil beldurgarri horren imagina neukan buruan sartuta nuen eta asko kostatu zitzaidan berriro ere lokartzea. Hurrengo goizean gauean gertatutakoaz pentsatu eta tonkakeria bat iruditu zitzaidan. Ikastolara joan nire eguneroko bizimoduari ekin nion arratsaldeko 8ak arte. Nire gurasoak lagun batzuekin geratu ziren pote batzuk hartzeko. Etxean bakarrik nengoen liburu bat irakurtzen eta musika lasaigarri bat entzuten. Telefonoak jo eta azkar joan nintzen beheko solairura erantzutera:  
"-Nor da?-" galdetu nuen, baina erantzunik ez.

Bapatean ate bat kolpe handi batekin ixten zela entzun nuen. Pausu batzuk ere entzuten zirelarik, gero eta hurbilago zeuden. Beldur izugarri batek hartu ninduen eta mutu gelditu nintzen, oraindik telefonoa eskuan nuela. Pausuak ni nengoen gelarantz hurbiltzen ziren, gero eta gogorrago gainera. Justu-justu nire atzean nabaritu nituenean oihuka egiteko prest nengoen baina... nire ahotik ez zen soinuirik irtetzen. Atzera begiratu eta ez nuen inor ikusi, dena den, gelako altzairu guztiak tokiz aldatuta zeuden. Nire logelan garrasi handi batzuk entzuten ziren eta ea-ea konturatu gabe gelatik irteten eta eskilark igotzen hasi nintzen. Beldurraren beldurrez ezin nuen ezta pentsatu ere egin. Zerbaitek gidatzen ninduen. Telefonoa har-

tzera joan baino lehenago entzuten ari nintzen musika orain nire belarrietara argi ta garbi iristen zen. Gelara iritsi eta bertan gelditu nintzen. Atea berez itxi egin zen. Zabaltzen saiatu baina ezin izan nuen. Nire armairuaren barrutik edo norbaiten ahotsa entzuten zen eta bapatean, ni handik pasatzen ari nintzela atea ireki egin zen. Barruan, nire antza zuen neska bat ikusi nuen, baina neska baten izpirutua zela konturatu nintzen. Nire zainetako odola guztiz izoztu egin zen bere ondloan nire ametsetako mutila agertu zenean laban zorrotz bat eskuan zuela.

"-Hau zu zarella pentsatuko duzu" - esan zuen izpirutuak hatzarekin seinalatzen ninduen bitartean.

Ondoren labana hartu eta neskaren lepoa pixkanaka-pixkanaka moztu zuen. Nire bizitzan ikusita nuen gauzarik nazkagarriena izan zen hau.

Oso urduri eta beldurtuta nengoen eta ez nekien nora begiratu edo zer egin. Azkenean, erlojuja so eta gaueko 11ak zirela ohartu nintzen. Beheko solairuan giltza batzuen eta ahots batzuen zarata entzun nituen, eta nire lasaitasunerako nire amaren ahots garratza, momentu horretan munduko goxoen iruditu zitzaidana, entzun nuen.

Nire beldurra, izpirutuak etabar desagertu ziren, magiaz edo.

Gurasoek urduri samar aurkitu nindutenez guztia kontatu nien, baina sinesgaitza iruditu zitzaizen eta garrantzi gehiegirik ez zioten eman.

Gau horretan beste amets bat izan nuen. Ni, Erromako enperadore ospetsu bat nintzen eta mutil errugabe bat epaitu behar nuen. Berak, gertatutakoa kontatu eta nik errudun epaitu nuen eta heriotza zigorra ezarri nion. Gau hartan sutan hil zuten eta bere azkenengo hitzak hauek ziren: "lagundu nazazu".

Bapatean bero handia igerru nuen. Esnatu eta etxe guztia sutan zegoen. Oihuka hasi nintzen eta ahal izan nuen moduan nire gurasoak abisatzera korrika joan nintzen. Berandu iritsiz, beraien gelan sartzean konortea jadanik galdu ta zuten, ez nekien zer egin, biak ezin nituen atera. Etxetik atera eta laguntza bila aabiatu nintzen. Laguntza iritsi zenean aita eta ama hilda zeuden. Karkaila beldurgarri bat entzun egin zen eta ostean: "Nire bizitzarekin egindakoa zure gurasoen bizitzaz ordaindu duzu".

Momentu horretan guztia ulertu nuen. Beste bizitza batean nik mutil hori hil egin nuen eta berak txanpona bueltatu egin zidan. Kolpe handia izan zen, baina zorionez familiaz eta lagunengatik laguntzaz gainditzea lortu nuen. Nahiz eta inoiz ametsetan nagoela entzuten dudana: "Lagundu gaitzazu".

Irene Martínez de Santos Villa • DBH 3.A

## FANIMALS



**▶ IKASLEEN TXOKOA:**



**Retrato**

Soy la mayor de dos hermanas,  
No me gusta desayunar por las mañanas  
Pero tomo algo  
Porque sino para estudiar no valgo.

Me gusta el baloncesto  
Aunque no juego en ningún equipo de esto.

Me gusta el ajedrez  
Aunque a veces tenga que perder.

Me gusta sacar buenas notas  
Pero sin perder la pelota.

Me voy al pueblo los fines de semana  
Pero siempre con mi hermana.

Carmen Zárate • DBH 1. D

**La adolescencia**

Nací en una dulce barriguita  
de una dulce señorita.  
Ella era muy chiquita  
tan sólo 16 años tenía.  
No le faltaba de nada  
tan sólo una vida.

Una vida para disfrutar  
de toda su alegría y simpatía.

Así que como no me quería,  
cuando yo tan sólo  
seis años tenía  
le di esa vida  
le di esa alegría.

Lo que es la adolescencia  
sólo se hacen tonterías.  
No sigas ese ritmo,  
no sigas esa vida.

OLATZ AZKARRAGA • D.B.H. 2 A

**Mi vida eres tú**

Por un amor se cierra una puerta.  
Por un amor se apaga una luz.  
Por un amor se pierde la vida.  
Pero, ¿qué voy a hacer si mi vida eres tú?

OLATZ AZKARRAGA • D.B.H. 2 A